



TANTAZ TANTA BLAI JAIALDIA LARUNBATEAN, KIROLDEGIAN

Hernaniarren tantak bat eginda, larunbateko jaialdian

Kiroldegiko pelotalekuan elkartuko dira Hernaniko musikari, aktore, kirolari, talde... herritarrak, tanta eman eta indarrak batzeko. Jaialdia 19:30etatik aurrera.

TANTA bihurtu eta giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen aldeko espazio amankomuna sortzea du helburu Tantzaz Tanta ekimena. Izenak berak dioen moduan, Euskal Herri osoko tantak elkartu, eta itsaso bihurtu nahi dute, indarrak

elkartu, hain zuzen. Deialdia egina dute urtarrilaren 11n Bilbon, *Giza eskubideak. Irtenbidea, Bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean.

Aurretik, herriz herri, auzoz auzo ari dira tanta horiek elkartzen, eta Hernanin, larunbatean antolatu dute *Tan-*

taz Tanta Blai jaialdia. Kiroldegiko pelotalekuan elkartuko dira 19:30etatik aurrera hainbat sektoretako pertsonak. Euren aportazioa edo tanta ematea izango dute guztiek helburu, horien artean: Morau, Xabier Solano eta beste hainbat musikari, Ozen-

ki abesbatza, Akelarrea, Bertso Eskola, txalapartariak, dantzariak, kirolariak... Bideo proiektzioak, antzerkia, parodiak, Paulinoren xoua... denetarik izango da, eta hernaniar guztiei deialdi berezia egin diete, egun horretan gerturatu, eta euren tanta emateko. ||

Hainbat sektoretako pertsonak egin dute bat Tantzaz Tanta iniziatibarekin, «hamaika iturritik sortuak gara, desberdinak garenok itsaso berean elkartu gara, une historiko honek hala eskatzen duelako». Zazpi hernanir hauek ere, bat egin dute, gainerakoei animatuz:



Juan Martin Erdozia:
«Euskal presoak eta deportatuak, etxera!»



Xabier Iradi:
«Tantzaz tanta, Hernanitik ere, erreka sortuz»



Damian Pedrosa:
«Gure tantak bihotzaren elkartzun taupadak dira»



Miren Gojenola:
«Tantzaz tanta, busti gaitezen, tantaz tanta blaitu, Bilbo ozeano bihurtu arte!»



Jon Apaolaza:
«Ni ere tanta naiz!»



Txaro Untzilla:
«Beste tanta bat nahi dut izan, itsaso bihurtzeko»



Mikel Laskurain:
«Urtarrilaren 4an, egun ederra denok bustitzeko»

❖ KABALGATA

Arropak jasotzera, ostegunean

Erregeen kabalgatan parte hartu nahi duten ume guztiek, ostegunean, 17:00etan, Biteritik pasa behar dute pajeen jantziak jasotzera. ||

◆ SAN SILVESTRE

Wukroren aldeko lasterketa, bihar

San Silvestre lasterketa antolatu dute bihar, Wukroren alde. 18:00etatik aurrera, maila desberdinetako lasterketak izango dira, Plazatik abiatuta. Aurrez izena emanez gero, 6 euro ordaindu behar dira; egunean, 10 euro. Aurrez izena emateko: www.kirolprobak.com, Pelotadenda eta Ibai Mendin. ||

◆ KIROLDEGIA

Itxita, bihar eta etzi

Kiroldegia itxita egongo da bihar eta etzi. ||

Txartel berriak, urtarriletik aurrera

Adin txikikoen txartel berriak urtarrilaren 20tik aurrera jaso ahal izango dira. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Dantzaldia, etzi

Urte Berri egunean dantzaldia egingo dute Goiz Eguzkin. 17:30etan irekiko dute egoitza. Bihar, berri, 18:30etan itxiko dute. ||

❖ AMHER

Kontsultarik ez, urtarrilera arte

AMHER elkarteak ez du kontsultarik egingo urtarrilaren 13ko arratsaldera arte. Informaziorako: 943 33 60 71. ||

❖ URUMEA IKASTOLA

Ikasle ohiak, Iñude eta Artzaietarako

Urumea ikastolaren 50garren urteurrena dela eta, Iñude eta Artzaietan, ikasle ohiak ateratzeko deia egin dute. Izena emateko: 685 727 387 edo 688 660 707. ||

VGALDETXXO
Jatetxea

BAZKARIAK

ETA

AFARIAK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

tripontzi taberna

PINTORAK **BOBATEK**
BALIOAK **PLATER**
ENTSALEDAR **BOBINATOK**

ZATOZ
DASTATZERA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz

ASEGURUAK

bitxia -
ietripuak -
loigalluak -
etanak -
komertzioak -
enpreak -
andura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 28
Faxa: 843 33 57 71

Adarraga

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ✚ **FARMAZIAK** ● **Eguz**: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauz**: Aldabe Perkaitezgi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Urdinguneak nagusituko dira goiz partean, baina pixkanaka ugartzen joango dira lainoak. Dena dela, ez da euririk espero. Hego-mendebaldeko haizeak tarteka zakar joko du. Min.3° / Max.12°.
BIHAR Hego ukituko haizearekin jarraituko dugu eta pixkanaka indartu egingo da. Lainoak ugariagoak izango dira eta euri pixka bat egin dezake arratsaldean. Min.7° / Max.13°.
 (euskaime)

ESKU PELOTA

Arrieta eta Gorrotxategi, Olazar Torneoko finalean, bihar

Zaldibarren jokatu da finala, 16:30etatik aurrera. Beitia eta Diez bizkaitarrak izango dituzte aurrez aurre. Oso final parekatua espero da.

OLAZAR Torneoko finala jokatu dute bihar Ioritz Arrieta eta Aitor Gorrotxategi pelotariek. Beitia eta Diez bikote bizkaitarren aurka neurtuko dira. Bizkaiko Zaldibar herrian jokatu da. Pelota partidua izango dira 16:30etatik aurrera, eta hernaniarrena bigarrena izango da. ETBn emango dute Urte Berri egunean.

Ohiko maila emanez gero, txapelak etxera

Finalera iristeko, bikote hernaniarrek 22-5 irabazi zizkieten final zortzirenak Alvarado eta Urruzolari; 22-18 final laurdenak, Yoldi eta Arratibeli; eta 22-10 finalerdia, Urbieta eta Iturriagari.

Finala oso parekatua

espero da. Bizkaitarrak esperientzia haundiko pelotariak dira, baina hernaniarrek euren ohiko mailan jokatzeko badute, txapelak irabazteko aukera izango dute.

Denboraldiko 16garren finala da Hernaniko pelotariarentzat.

Gipuzkoako Txapelketan, 6 garaipen

Asteburu ona izan da pelotari hernaniarrentzat, Gipuzkoako Txapelketan. 6 garaipen lortu dituzte eta 5 porrot. Onena, Zugasti infantilaren garaipena izan da, kontsolazio faseko finala irabazi baitu.

Trinketean, Lopez seniorrak eta Pagola kadeteak ere, garaipenak lortu dituzte eta azken fasea jokatzeko sailkatu dira.

Trinketean baita ere, senior lehenengo mailan, Esnaola eta San Sebastianek galdu egin zuten eta biak azken fasea jokatzeko aukerarik gabe geratu dira. Orain, mailaz ez jaisteko jokatu beharko dute. Eta bigarren mailan, Altuna, Zurutuza eta Lizeagak galdu egin zuten eta txapelketatik kanpo geratu dira. ||

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Emaitzak:

Inf: Oihan Zugasti 2/Aurrera Saiaz 1
 Kad: Iñaki Urruzola 30/Intza 14
 Kad: Xabat Pagola 30/Urnieta 13
 Jub: Ekaitz Cisneros 35/Eple 12
 Sen: Ioritz San Sebastian 10/Usurbil 40
 Sen: Eñaut Esnaola 7/Behar Zana 40
 Sen: Egoitz Altuna 40/Urnieta 29
 Sen: Ander Lopez 40/Usurbil 33
 Sen: Mikel Zurutuza 12/Eple 40
 Sen: Markel Lizeaga 30/Orio 40
 Sen: Josu Altuna 19/Usurbil 40

OSIÑAGAKO AUZO ELKARTEA



Juan eta Mikel Garmendia museko irabazleak, eta M^a Dolores Muruarentzat, saskia. Osiñagako Mus Txapelketako irabazleak Juan eta Mikel Garmendia urnietarrak izan dira. Txapelak eta txerrikumeak irabazi dituzte. Azpitxapelkunak, Pantxo eta Jose Leon izan dira; hirugarrenak, Bizente Arnaiz eta Fernando Narro; eta laugarrenak, Jose Luis Toledotxiki eta Iñigo Izeta. Osiñagako Auzo Elkarteak eta auzoko sagardogileek zorionak eman nahi dizkiete irabazleei eta eskerrak parte hartzaile guztiei. Bestalde, aurtengo saskiaren sariduna M^a Dolores Murua izan da, Alzueta baserrikoa. Zorionak! ||



GABON KONTZERTUA

Txistulari Bandaren aspaldiko kontzerturik jendetsuena.

Gabon kontzertua eskaini zuen Txistulari Bandak, abenduaren 22an. Txistulariak ez ziren bakarrik aritu, biolin bikotearen laguntza ere izan baitzuten. Eta kontzertua giro ederrean joan zen. Milagrosa aretoa bete egin zen. Txistulari Bandaren aspaldiko kontzerturik jendetsuena izan zen, eta bukaeran, txalo zaparrada jaso zuten musikariek. Ondoren, pikatze zerbait, turroia jan eta txanpaina edateko aukera izan zuten bertaratutakoek. ||

ELIZA

ETBk Hernanitik eskainiko ditu mezak

Urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an, Euskal Telebistak Hernaniko San Joan Parrokiatik eskainiko ditu bertako meza-ospakizunen emaldiak. Horretarako, abenduaren 31ko meza grabatuko dute eta 19:00etan beharrean, 18:00etan izango da. Eta baita urtarrilaren 4koa ere, 19:00etan. Errege eguneko, zuzenean eskainiko dute, 11:00etan. ||

PORTU AUZOA

Tentsioa askatzeko, masaje tailerra gaur

Portu auzo elkarteak ekintza ugari antolatu ditu Gabonetan eta gaur, tentsioa askatzeko masaje tailerra antolatu dute, 17:30etan elkarteko lokalean. Helduentzako da. Bihar, berriz, Santa Barbaran mendi buelta egingo dute, urte bukaera ospatzeko. Goizeko 10:30etan abiatuko dira. Eta ostiralean, erroskilla tailerra eta merendola antolatu dituzte, 16:30etatik aurrera. ||

ERREMONTA

Gutxiatik galdu zuen Barrenetxeak

Larunbatean, erremonte jaialdia izan zen, ohi bezala. Endika Barrenetxea hernaniarrek hirugarren partidua jokatu zuen Etxeberria IVarekin eta gutxiatik galdu zuten Ezkurra eta Agirrezabalaren aurka: 40-38. Gainerako emaitzak: Matxin VI-Aizpuru III/Segurola-Zubiri 21-35; Juaristi/Urtasun 25-30 (Banakako Masterra); eta Matxin III-Larrañaga/Juanenea-Olazar 16-30. Bihar jokatu da Binakako Txapelketako finala. ||

GIMNASIA ERRITMIKOA

Aurrebenjaminek, izena emateko aukera

2008an jaiotako neska-mutilentzat, programa bat eskaintzen du Hernaniko Gimnasia Erritmiko elkarteak eta izen ematea zabalik dago. Motrititate, gimnastika gaitasuna eta gorputz adierazpena landuko dituzte. Urtarrilaren 7tik aurrera hasiko dira saioak eta izena emateko epea egun horretan bukatuko da. Horretarako: hernanigee@hotmail.com. ||

ETXEBIZITZA

Karabelgo babes ofizialeko etxeetan izena emateko azken eguna, gaur

Karabelen, 72 etxebizitza egingo dituzte babes ofizialekoak eta zozketan parte hartu nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna. Prozeduran parte hartzeko, Etxebiden izena emanda egon behar da eta eskaera idatzia sinatu, eta bidali. Informazio gehiago: 943 46 20 86 edo ventas@oraune.com. ||

ASTIGARRAGA

Joko aretoa zabalik, hiru egunetan

Astigarragako kultur etxeko joko aretoa zabalik egongo da gaur, bihar eta ostegunean. 9-12 urteko gaztetxoentzat da. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 16:00-18:30. ||

Joste ikastaroan izen ematea, zabalik

Astigarragako kultur etxean joste ikastaroa antolatu dute urtariletik martxora eta izen ematea zabalik dago. Astelehenetan izango da 18:30etatik 20:30etara. Tytti Thusberg diseinatzailearen eskutik izango da. Izena emateko: 943 33 50 64. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)